

DATUAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren izena	BULARREKO MINBIZIAREN DETEKZIO GOIZTIARRA
Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak	<p>Osakidetza – Euskal osasun zerbitzua / Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza</p> <p>– Araba, 45 – 01006 Vitoria-Gasteiz</p> <p>Osakidetzako Datuen Babeserako ordezkaria:</p> <p>– Araba kalea, 45 – Vitoria-Gasteiz</p> <p>– DBO-DPD@osakidetza.eus</p>
Tratamenduaren xedea	Bularreko minbizia prebenitzeko programa koordinatzea; programan parte hartzen dutenen zitazioak egin; informazio-fluxuak kudeatu eta programaren emaitzak ebaluatu. Ikerketa klinikoa.
Datuak gordetzeko epea	Iraunkorra.
Tratamenduaren oinarri juridikoa	Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzea, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.
Hartzaileak	<p>Minbizi-kasuen datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.</p> <p>Identifikazio-datuak, osasun-datuak alde batera utzita, udalei, programara zitazioak bidaltzeko helbidea lortzeko.</p>
Eskubideak gauzatzea	<p>Interesdunak datuetara sartzeko eta horiek zuzendu edo ezabatzeko, eta tratamendua mugatzeko edo horri uko egiteko eskubideak gauzatu ahal izango ditu idatzi bat zuzenduta Osakidetza - Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza, Araba kalea 45 - 01006 Vitoria-Gasteiz helbidera, NANaren edo beste nortasun-dokumentu baliokide baten kopia erantsita.</p> <p>Interesdunak, halaber, eskubidea du Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.</p>
Datuen jatorria eta kategoriak	<p>Datuak interesdunak berak eta Osakidetzako langileek eman dituzte.</p> <p>Era berean, helbide-datuak dagokion udalarenak izan daitezke.</p> <p>Datuak: identifikagarriak; ezaugarri pertsonalak adieraztekoak; osasunarekin loturikoak.</p>